

Ostirala

2023ko azaroaren 10a
XIV. urtea
605. zenbakia
PREZIOA: 0,50 €

www.bizkaia.hitza.eus
bizkaia@hitza.eus

4 Berbetan Elena Sarasola eta
Yolanda Martinez: «Ostalaritzara
jo genuen bizitzeko, ideiarik izan gabe»

10 Hedabideak Bihar 'Lea-
Artibai eta Mutrikuko Hitza'-ren
20. urteurrena ospatuko dute Lekeition

BIZKAIKO HITZA



MARICOL RAMIREZ / FOKU

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa jokatu dute bihar, Lemoan • Datozen hiru zapatuetan, hamazortzi bertsolari lehiatuko dira abenduaren 16ko finalerako txartela lortzeko. • 2-3



Finalerako hautagaiak, prest

Bihar hasiko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoen fasea, Lemoan • Txapelketan lehen aldiz kantatu duten bertsolari gazteek «maila ona» eta «freskotasuna» erakutsi dute kanporaketetan

Ibai Maruri Bilbao

Bihar hasi eta datozen hiru zapa-tuetan jokatuko dira Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoak, Berrizen, Santurtzin eta Lemoan. Finala abenduaren 16an izango da, Bilbo Arenan. Kanporaketa fasetik 11 bertsolari saikatu dira finalaurrekoetarako, eta aurreko txapelketako finalean parte hartu zuten bertsolarietatik beste zazpi gehituko zaizkie –Etxahun Lekuek uko egin dio parte hartzeari–. Ander Elortegi bertsolari eta bertso irakasleak ez du sorpresa handirik hartu finalaurrekoetako lehiakideen izen-abizenak ikusita: «Zerrenda logikoa da». Dena den, bertsolari batzuk kanpoan geratu izana deigarri egin zaio Elortegiri: «Beste urteetatik esperientzia daukan jendea da. Imanol Uria finalerako hautagai ere izan zitekeen. Paule Loizaga aurretik egon izan da finalaurrekoetan. Baina txapelketa horrelakoa da, eta normal hartu behar da».

Kanporaketa fasearen balantze ona egin du. «Gorabeheratsua izan da: saio batzuk hobeak izan dira, eta beste batzuk, espero baino maila txikiagokoak. Azken batean, inprobisazioa da, eta horrelakoak pasatzen dira. Hala ere, oro har, maila oso ona ikusi dut». Elortegik nabarmendu du Bizkaiko Txapelketara lehenengoz joan den bertsolarien taldeak ere «maila ona» erakutsi duela kanporaketetan. «Lehenengoz txa-



Bizkaiko Bertsolari Txapelketako azken kanporaketa, azaroaren 1ean, Lekeition. MARISOL RAMIREZ / FOKU

pelketan egoteak duen zailtasunari erraz egin diote aurre. Lehen aldiak belarrondokoa emateko arriskua egoten da, baina talde hau polito ibili da, eta hurrengo txapelketetarako esperientzia hartu dute».

Berrienez gainera, gazteenen taldetik, besteak beste, Koldo Gezuraga, Aissa Intxausti, Bittor Altube eta Ibai Amillategi azpimarratu ditu bertso irakasleak. Ez da izan haien lehen txapelketa, eta, Elortegiren ustez, «aurretik egin-

FINALAURREKOAK

Bihar

Non. Berrizko Olakueta frontoian.
Noiz. 17:00etan.

Azaroak 18

Non. Santurtziko Serantes kultur etxean.
Noiz. 17:00etan.

Azaroak 25

Non. Lemoako udal kiroldegian.
Noiz. 17:00etan.

dako lanari eta esfortzuari esker» lortu dute finalaurrekoetarako saiklatzea. Arestian aipatu bezala, Etxahun Lekuek ez du txapelketan parte hartuko. Erabaki bera hartu dute Julen Erezumak, Miren Amurizak eta Elortegik berak. Beraz, aurreko txapelketekin alderatuta, hutsune batzuk sortu dira finalaurrekoetan. «Zulo horiek betetzera sartu diren gazteak meritu osoz sartu dira. Finalaurrekoetan emateko zer duten entzun nahi dut, ezer kendu gabe lehendik dabil-

tzanei. Freskotasuna dute, eta ilusioa pizten dit niri». Elortegiren ustez, bertsolari belaunaldi gazteagoen txanda hasi da Bizkaian.

Kanporaketa fasetik finalaurrekoetara aldea nabaritutako dute bertsolariek; batez ere, berriek. Elortegiren esanetan, kanporaketetan erakutsi behar izan dute badakitela bertsoan. Orain, hori frogatuta, gehiago ere egin deza-



Ez nituzke finaletik kanpo utziko Enbeita, Galletebeitia edo Uria, baina egia da aldagai asko daudela»

Ander Elortegi

Bertsolaria eta bertso irakaslea

ketela erakutsi behar dute. «Aurreko txapelketako finalistekin elkartzan zara, eta salto bat gertatzen da maila guztietan. Esaterako, gaitegian ere igartzen da. Gai jartzaileek finalaurrekoetarako prestatzen dituzten gaiak exigentzia handiagoa eskatzen du; iritzi indartsu bat, diskurtso bat». Azken osatzearekin batera, diskurtso sendoa ere garatu behar du, inprobisatzen duen bitartean. «Aurreko urteetako finalistek badakite zer den hori, eta hilak daramatzate horretarako prestatzen. Dena den, nik uste dut gazteenek ere badutela hori egiteko behar den besteko maila».



Elortegiren ustez, hiru finalaurrekoetako kartelak «orekatuak eta ezberdinak» dira: «Denek daukate zerbait erakargarria». Bertsolari bakoitzak bere ezaugarriak ditu, bere bertsorako modua. Txapelketa irabazteko faberitza Nerea Ibarzabal dela uste du. «Denen ahotan dago. Urteetan izan duen eboluzioan aurrera doa. Iaz, Txapelketa Nagusiko finaleko sailkatzea lortu zuen, eta duela bi urteko Bizkaiko txapelketa da. Asko kostatuko zaie hari txapela kentzea». Uste du, oro har, finalistek zerrenda ere ez dela izango duela bi urtekoaren oso ezberdina. «Ez nituzke kanpoan utziko Onintza Enbeita, Xabat Gallettebeitia edo Jone Uria. Baina egia da aldagai asko daudela, eta edonork irabaz dezakeela». Uste du bizpahiru izen berri egon daitzekela finalistek artean.

Harrobia ere lehian

Asteon hasi da BBK sariketa ere. Azaroaren 29an jokatu da finala, Bilboko BBK aretoan. Elortegiren esanetan, sariketan dabilzan gaxtetxoentzat «akuiua» da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. «BBK sariketa gauza txikia da, areto txikietan lehiatzen da, baina bertsolari horiek bertsolari handi izatera jolasten dabilta, eta Bizkaikoaren finalaurreko batean sentitzen diren nerbioen parekoak dituzte».

Harrobi «ona» dagoela uste du. Oraintxe, gazte talde handi bat dabil bertsolari izateko prestatzen, eskoletan, udalekuetan, barnetegieta... Nesken portzentaje handia nabarmendu du Elortegik. «Hemendik hamar urtera, Bizkaiko Txapelketa irudikatzen ditut gaxtetxo hauek».



Finalaurrekoetarako edo finalerako sarrerak Internetez erosteko: **Bertsosarrerak.eus**

BERTSOLARIAK

BIHARKOAK

1. Aitor Etxebarrizarraga Gabiola
Gernika-Lumo, 1993

Fisikaria eta irakaslea. Donostian bizi da, eta Liliberto Busturialdeko bertso eskolako kidea da. Bizkaiko txapelketa 2018an parte hartu zuen lehenengoz, eta 2021ean finalista izan zen.

2. Gorka Pagonabarraga Agorria
Durango, 2000

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2018an parte hartu zuen lehenengoz, eta 2021ean finalista izan zen. 2022koa izan zuen aurreneko Txapelketa Nagusia.

3. Xabat Gallettebeitia Abaroa
Lekeitio, 1986

Farmazialaria ikasketaz, Bigarren Hezkuntzako irakaslea da lanbidez. Bizkaiko Txapelketa finalista izan da 2014an, 2016an, 2018an eta 2021ean. 2016an buruz burukoan kantatu, eta txapeldunorde izan zen.

4. Iuri Altzerreka Martinez
Garai, 2000

Berrizko bertso eskolan hasi zen, Miren Amurizarekin, 2008an. Ordutik, Berrizko eta Durangoko bertso eskoletan aritu da, baita bertso irakasle ere.

5. Eneko Abasolo Txabarri, 'Abarkas'
Iurreta, 1976

Iurretako bertso eskolako partaide eta Durangaldeko bertso eskola-

ren sortzaileetako bat da. Gaur egun ere txapelketa jarraitzen du, baita bertso eskolako irakasle eta beharretan eragile ere.

6. Koldo Gezuraga Seijido
Gernika-Lumo, 1996

8 urterekin Bizkaiko eskualdeko txapelketa hartu zuen parte. Euskal Ikasketen gradua egin zuen, Gasteizen. Bizkaiko Bertsozale Elkarteko langilea da, eta Liliberton ere badabil.

AZAROAREN 18-KOAK

7. Aitor Bizkarra Ruiz
Abadiño, 1996

Filosofia ikasketak egindakoa. Zelaletako Herri Eskolan eta Abadiño Gogaikarri bertso eskolan hasi zen bertsoetan, 10 urte ingururekin. Eskolartekoa izan zuen lehen txapelketa, 12-13 urterekin.

8. Jone Uria Albizuri
Getxo, 1990

Matematikako doktore da, eta irakasle ari da EHU'n. 2008an hartu zuen parte lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketa; finalaurrekoetara iritsi zen, eta gerora finaleratu aritu da, urte hauetan guztietan: 2010, 2012, 2014, 2016, 2018 eta 2021n. Azkenekoan, buruz burukoan kantatu zuen.

9. Mikel Goiriena Larrazabal
Mungia, 1985

2010ean eta 2022an Uribe Butroetxorierri eskualdeko txapela irabazi zuen. Mungiako Taket bertso eskolako kidea da. Energia berriztagarrien munduan egiten du lan.

10. Unai Mendiburu Valor
Getxo, 1998

Hainbat txapelketatan jardun du: eskolartekoa —idatiz eta bat-bat

LANAK

- Hiruna bertso ofiziotan, zortziko nagusian.
- Hiruna bertso ofiziotan, zortziko txikian.
- Hiruna bertso ofiziotan, hamarrekotik.
- Ganbarako lana: puntua emanda bertso bi, zortziko txikian; eta gaia emanda hiru bertso, doinu eta neurri librean.

tean —, BBK sariketan, Bizkaiko Txapelketa eta beste. Lehen Hezkuntzako gradua ikasi zuen, Leioan, eta orain Gabriel Aresti euskaltegian dabil irakasle, Bilbon.

11. Bittor Altube Sarriñandia
Abadiño, 2001

Haren lehenengo plaza 14 urtetik beherako gazteentzat egiten zen Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa izan zen, 2013. urtean, 11 urte zituela. Gaur egun, Lehen Hezkuntzako gradua bukatzen ari da.

12. Txaber Altube Sarriñandia
Abadiño, 1998

Eskolarteko hainbat txapelketatan parte hartu du, eta bi bider irabazi du Euskal Herriko eskolartekoa. 2016an parte hartu zuen lehenengoz Bizkaiko Txapelketa.

AZAROAREN 28-KOAK

13. Nerea Ibarzabal Salegi
Markina-Xemein, 1994

Kazetaria da ikasketaz. Bertsolaritzaz gain, bestelako diziplinetan ere aritua; prentsako kolaboratzaile, gidolari, irratiko esatari, idazle... Bizkaiko Txapelketa 2012an kantatu zuen lehenengoz, eta 2014an Lea-Artibaiko txapelduna izan zen. 2016an Bizkaiko Txapel-

ketako finalista izan zen, eta Txapelketa Nagusirako sailkatu zen. 2018an ere finalista izan zen, eta 2021ean, Bizkaiko txapelduna.

14. Onintza Enbeita Maguregi
Muxika, 1976

Kazetaria ikasketaz. 2006an iritsi zen lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera. Eskualdeko txapela irabazi zuen urte hartan, eta harrezkero izan diren final guztietarako sailkatu da Bizkaian. 2018an Bizkaiko txapeldun izan zen.

15. Ibai Amillategi Omaetxebarria
Gernika-Lumo, 1993

Umetatik bertsozalea. 21 urterekin hasi zen bertsoetan, Gernika-Lumon. Lilibertsoko kidea da.

16. Oihana Bartra Arenas
Bilbo, 1984

Bilboko Santutxuko Bertso Eskolan hasi zen bertsoetan. Irakasle eta itzultzaile jarduten du gaur egun.

17. Josune Aramendi Perez
Gernika-Lumo, 2003

14 urterekin sartu zen lehenbizikoz bat-bateko talde batean. Lehen plaza BBK sariketan izan zuen, Zallan. Liliberto eta Durangoko bertso eskolako kide da.

18. Aissa Intxausti Aburruza
Lekeitio, 1996

Zuzenbide eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua ikasi zuen, eta abokatutzako masterra egin. Bizkaiko Bertsozale Elkarteari hezkuntza arautuan bertsolaritza eskolak ematen ibili izan da. 2022tik Bizkaiko Bertsozale Elkarteko zuzendaritzako kidea da. Gaur egun, kontu hartzaile dabil udal batean.

«Bezeroak etxean baleude bezala sentitzea nahi izan dugu beti»

Yolanda Martinez eta Elena Sarasola
Bilboko Badulake tabernako jabe ohiak

Martinezek eta Sarasolak Badulake saldu dute. Garai bateko isun oldea gogoratu dute, baita bezeroen epeltasuna ere.

Amaia Igartua Aristondo Bilbo

Mito bat da, kasik: LGTBI pertsonentzako aisialdiko lokal erreferentziazkoa bilakatu da Bilboko Badulake taberna, 23 urte eskasean. «Nekeagatik», lokala saldu egin dute Yolanda Martinez (Burgos, Espainia, 1955) eta Elena Sarasola (Bilbo, 1963) sortzaileek, eta festa mordo batekin ari dira agur esaten: bihar, Sinsorga kulturgunekoekin batera antolatuta dute bat, eta hilaren 25ean egingo dute azkena. Bizipenak ere mordoka pilatu dituzte urte hauetan guztietan: «Badulaken momentu txarrak pasatu ditugu, baina baita oso onak ere», esan du Sarasolak.

Militantziatik zatozte...

ELENA SARASOLA: Ni 19-20 urteekin hasi nintzen iriteten, Bizkaiko Emakumeen Asanbladara batu nintzen, eta feminismoa ezagutzen hasi nintzen. Eta militantea izan naiz, lanak utzi didan bitartean. Izan ere, 1980ko urteen krisiaren ondorioz, Bilbotik joan izan behar genuen, ez baikeuen lanik. Orduko hartan, Bilbo borborka zegoen: mugimendu sozial pila zeuden, eta haietan parte hartzen genuen; ez bakarrik mugimendu feministan, baita ekologismoan ere, internazionalismoan... 2000n, Bilbora itzuli ginen, eta militantziari berriro heldu genion, guk nahi genuen negozio eredu baten bidez: gaueko taberna bat, gune seguru bat izango zena emakumeentzat, lesbianentzat, gayentzat...; mundu guztia erantzut.

Bilbon, Badulake zabaldu aurretik, bazeuden gune seguruak? Nora joaten zineten?

YOLANDA MARTINEZ: Bizitza eta Lamiak tabernak zeuden, Zazpi-

kaleetan. Baina 01:00ean ixten zuten. Haietatik, Enigmara joaten ginen, Hernani kalearen kale paralelo batean zegoen. Lokal oso dibertigarria zen, LGTBI mundu guztia egoten zen dantzan.

Badulake San Frantzisko auzoan dago. Proiektuak ugaritzen hasiak ziren ordurako?

MARTINEZ: Garai hartan, oso bazterreko eremu bat zen.

SARASOLA: Inork ez zuen negozioirik ipintzen zubiaren bestaldean, oso zaila baitzen.

MARTINEZ: Baina Zazpikaleetan lokalak oso garestiak ziren, eta han baino ezin genuen jarri nego-

kan zebiltzan, whiskia hartzen zuten bitartean. Gogoan dut Yolanda bi buruen artean jarri zela: «Taberna hau nirea da, ez zuena; alde hemendik!».

Noiz joan zineten bestelako publikoa erakartzen?

MARTINEZ: 2002an, jada ilara oso luzeak genituen tabernara sartzeko. Baina jendeak ez zuen kontsumitzen, kanpotik edaria ekartzen zutelako. Gertatu izan zaigu barran lau lagun egotea zerbitzatzeko, eta elkarri begira egotea.

SARASOLA: Sarrera kobratzen hasi ginen, neurri hura inoren gustukoa ez zen arren.

MARTINEZ: Baina asumitu zuten. 2008ra arte, olatu batean egon ginen; 2008ko krisia apur bat beranduago igartzen hasi ginen.

SARASOLA: Krisi ekonomikoaren alabak gara: Yolanda aktorea da, eta ni, argazkilaria; beraz, beste lan bat topatu behar izan genuen. Ostalaritzara jo genuen bizirauteko, ideiairik ere eduki gabe.

Bakioko La Bodeguilla gaueko taberna gobernatu zenuen Badulake baino lehen. Zer moduz joan zen?

MARTINEZ: Bakion erakutsi egin ziguten. Ez zen gauza askorik gertatzen. Inoiz gatazkarik zegoenean, bazter-nahasleen gurasoengana joaten ginen. «Aizu, zure semeak billarra apurtu digu!». Bost urtez egon ginen han, baina bizitza kulturalera ere itzuli nahi genuen, eta hori Bilbon zegoen, batez ere.

Badulaken ere islatu duzue kulturarekiko interesa: arte eseni-



Yolanda Martinez eta Elena Sarasola, Bilboko Plaza Biribilean, astelehenean. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

koak programatu dituzue, Las Fellini egoten dira astero...

SARASOLA: Hasieratik argi genuen, lokalaren diseinutik hasita. Aurretik, altzari denda bat zen, eta arkitektoari agertoki txiki bat eskatu genion, azpian hutsune batekin aulkiak gordetzeko eta butaka patio txiki bat egiteko.

MARTINEZ: Gauza asko egin genituen. *Monólogos de la vagina*, esaterako [Baginaren monologoak]. Garai hartan, Eve Enslerren baimena lortu behar zen [AEBetako antzerkigile eta aktibista feminista, baginaren monologoaren sortzailea], eta lortzen zenuen dirua tokiko andre talde bati eman behar zenion: guk Mujeres del Mundo Babeli eman genion, emakume migratzaileen aurrenetariko elkarteari. Hiru aldiz egin genuen: bi saio Badulaken, eta bat Arriagan. *Operación Travesti* ere egin genuen, zazpi aldiz, Las Fellinirekin, La Terremoto de Alcorconekin, La Prohibidarekin...

SARASOLA: Eta antzerki talde bat ere bai, Las Txirenitas: Maribel Salas, Loli Astoreka, Sol Maguna, Gemma Martinez, Vito Rogado eta Yolanda zeuden.

Nola aldatu da Bilboko gaua?

MARTINEZ: Azkunaren garaian [Iñaki Azkuna, Bilboko alkatea 1999tik 2014ra arte], suntsitu egin zuten. Lehen, Bilboko gaua interesgarria zen, orain ez bezala, eta Badulake erreferentziazko taberna zen. Jendea etortzen zen Kantabriatik, Burgostik [Espainia], edozein tokitatik, Bilbon asteburua igarotzeko, baina, batez ere, gaua bizitzera. Galtzen joan zen hasieran tontakeriak ziruditen neurriekin. Krisia etorri zen, tabernetan erretzeko debekua, COVID-19aren pandemia...

SARASOLA: Ostalaritza mundu konplikatu da, eta gaua, are gehiago. Pandemiaz geroztik, agresibitatea orokortu da, jendea ziztuari oldartzen da. Guk heziketa lan hori aspaldi genuen eginda,



baina orain berriro egin behar izan dugu.

Zer-nolako giroa egoten da Badulaken?

SARASOLA: Bezeroak etxean baleude bezala sentitzea nahi izan dugu beti. Aspaldiko bezeroak eta berriak ezagutzen dira; sare antzeko bat sortu dugu.

MARTINEZ: Beti ipini dugu abesteko moduko musika. Ez komertziala, aldiari aldikoa, baizik eta markatzen zaituena, sentimenduekin lotuta dagoena. Horrek giro atseginagoa sortzen du.

SARASOLA: Inoiz eskatu digute: «Jarriko duzu Bisbalen zer bait?». «Ez, hori ez dugu jartzen».

Bisbal asko eskatu izan dizute, ala?

SARASOLA: Hasieran, asko eskatzen zizkiguten *Operación Triunfo*-koen abestiak. Orain, reggaetonen aurka borrokatzen ari gara.

MARTINEZ: Reggaetona eboluzionatzen joan da, baina hasieran oso gogorra zen, letra hain matxista



23 urteko bidea. 2000. urtean zabaldu zuten Badulake taberna Yolanda Martinezek eta Elena Sarasolak. Irudia hasierako hamarkadako da: Bilboko Hernani kalean ageri dira, Badulakeren aurrean. ELENA SARASOLA

Dantatzeko abestiak? ELENA SARASOLA: ABBaren

Dancing Queen; Nancy Sina-
traren *These Boots Are Made
for Walkin'*; New Orderren
Blue; Tino Casalen *Eloise*...

YOLANDA MARTINEZ: Oro-
korrean, 1980ko eta 1990eko
urteetako musika.

Aldarrikatzeko abestiak?

MARTINEZ: Raffaella Carraren
*Para hacer bien el amor hay
que venir al sur*. **SARASOLA:**
Paralisis Permanenteren *Auto-
suficiencia*; Leñoren *Maneras
de vivir*...

Zer edari eskatzen da

gehien? SARASOLA: Asko
eboluzionatu du. Hasieran,
kubata zen nagusi. Gero, Gin
tonicak kendu zion tokia. Ga-
ragardoa ere beti eskatzen
dute, kalimotxoa... Eta txupito-
ak; gaur egun, sekulako auke-
ra dago.

Egoteko toki bat? SARASO-

LA: Via de Fuga kafetegia, Ere-
aga... **MARTINEZ:** Zazpikalee-
tan, Irrintzi, Lamiak, Bizitza...

Nor nahiko zenukete era-

man Badulakera? SARASO-

LA: Madonna... **MARTINEZ:**
Samantha Hudson. Gustuko
dut haren diskurtsoa.

eta biolento horiekin. Luzarorako
etorri da, baina gu libratu gara.

**Esan duzue Bilboko gaua sun-
tsitu egin zuela udalak...**

MARTINEZ: Lehen, Bilbok beste
estetika bat zeukan, gatazka so-
zial mordo bat zegoen... Hala da,
bai. Baina, gauez, bizirik zegoen.
Baina neurri mordo bat hartu zu-
ten.

SARASOLA: Barrenkalen [Zazpi-
kaleetan], lokalak intsonorizatzeko
eskatu zuten, eta isun mordo
bat ipintzen hasi ziren. Badulake
zabaltzera joan baino lehen, Ba-
rrenkalen hartzen nuen kafea, eta
Erriberatik Bizitza tabernara joa-
teko hamar minutu luze behar ni-
tuen, kalea lepo egoten baitzen.
Isunak ugaritu ziren; taberna
asko itxi egin ziren, ez zeudelako
intsonorizatuta, zegokien ordua
baino beranduago ixten zutela-
ko... Urte askotan, Santiago kate-
dralaren plazan, ertzainak egon
ziren paseatzen, txakurrekin;
egoera basatia zen.

Zuei nola eragin zizuen giroak?

MARTINEZ: Zarata egiten ari ba-
zara, logikoa iruditzen zait musi-
karen bolumena jaitsi behar iza-
tea, baina formak oso desegokiak
izan ziren. Jende batek erreforma-
k egin zituen lokalak egokitzeko,
baina dagoeneko ezin zuten
ordutegia luzatu... Guk ordutegi
zabalagoa genuen, baina isunak
ipintzen zizkiguten, beste gune
batzuetan permititzen zituzten
gauzak egiteagatik. Uste dugu
Zazpikaleetako giroa apaldu nahi

zutela, beste gune batzuk indar-
tzeko. Abokatu bat genuen soilik
isunak kudeatzeko. Ezin sinetsiz-
ko egoerak ziren.

Adibidez?

MARTINEZ: Ixten zenuen taber-
na, jada ez zegoen bezerorik, eta
barruan geunden garbitzen eta
kutxa egiten. Hala ere, isuna jar-
tzen ziguten berdin-berdin,
barruan egoteagatik. Udaltzai-
nek esaten ziguten: «Itxiera
orduan, lokaletik desagertu
behar duzue». Eta noiz egin
behar genuen kutxa, orduan?
Abokatuari esker, isun gehiene-
tatik libratu ginen, ez baitzuten
logikarik. Baina presio bat ezarri
zuten, azpiegitura bat suntsitu
arte. Jendea asko mugitzen zen
lokal batetik bestera: ibilbide hori
zapuztu egin zuten.

**Azken urteetan, presioak behe-
ra egin du?**

MARTINEZ: Jada ezin zenean
lokal barruan erre, jendea kanpo-
ra atera zen erretzera, eta zarata
eragiten zuten. Orain ikusita,
nazkagarria zen orduko egoera:
lokala kez beteta, hormak nikoti-
naz blai... Baina, ostean, auzoki-
deak molestatzen hasi ziren. Jen-
dea hezi behar duzu, ez daitezten
hasi abesten kalera irten eta bere-
hala, 03:00etan... Beirazko eda-
lontziak ere jada ezin dira kalera
atera...

**Inoiz pentsatu duzue lokala al-
datzea, leku handiago batera joa-
teko, edo hainbeste presiorik
gabeko gune batera?**

MARTINEZ: Garairik arrakasta-
tsuenean, esaten ziguten beste
lokal bat irekitzeko. Baina gu ez
gara izan ostalari anbiziotsuak.
Bakarrarekin nahiko izan dugu:
lortu dugu langileak zoriontsuak
izan daitezten, ahal den neurrian,
behintzat; lortu dugu izan ditza-
ten soldata onak, oinarritzeko
beharra betetzeko... Hori izan
da gure interes nagusia. Ez da
nahi genuen bizimodua, baina
bide eman digu nahi genituen
gauzak egiteko, eta eroso bizitze-
ko.

**Hemendik aurrera, zer bide har-
tuko du Badulakek?**

MARTINEZ: Nekeagatik utzi du-
gu. Ni erretirata nago, Elenak
bakarrik darama pandemiak ge-
rozitik.

SARASOLA: Nire bizitzako urte-
rik gogorrenak izan dira.

MARTINEZ: Pozik gaude gaua
utzi dugu, eta zaletasunei
helduko diegulako, jada kezkarik
gabe. Libre egongo gara abendu-
aren letik aurrera. Uste dugu hu-
rrango jabeek jarraipena egingo
dutela: izena berbera izango da
—prestigioa badu—, Las Fellinik
ere jarraituko dute...

Kinka

KLIMA ETA NATURA KRISIAN



Podcasta eta buletina,
hamabostero

HARPIDETU ZAITEZ
BULETINERA

Berria.eus/kinka

aldi hau
kontatzeko
berria



Ez dugu ezer ikasi

Gaur atzo baino gehiago dakit, baina bihar baino gutxiago. Hala gertatu ohi da behintzat. Hori kontatu digute askotan, eta horrela kantatu zigun Berri Txarrak-ek. Bizitzaren eskolan etengabe ikasten ari omen gara, baina amnesia puntu bat ere badugula esango nuke.

Hamabost urte bete dira urrian Lehman Brothesen hondamenditik. Zartako itzela eman zion geroz eta globalizatuago zegoen munduko ekonomia. Oso denbora laburrean Estatu Batuetan hasitako finantza krisiak Europara egin zuen salto. Energia bezala, krisiak ez dira ez sortzen, ezta suntsitzen ere, eraldatu egiten dira, eta finantza krisia izatetik ekonomikoa izatera pasatu zen, eta handik gutxira

zor publikoarena. Estatuen ordainketa gaitasuna ezbaian jarri zuten merkatuek, mesfidantza nagusi bilakatu eta hainbat gobernu erreskatea eskatu behar izan zuten. Ez naiz honetan asko luzatuko. Zer gertatu zen aski ongi dakigu denok eta askok gogor pairatu zuten.

Kapitalismo basatiaren orgiak ekarri zuen krisia. Finantza sistemari ate guztiak ireki eta merkatuak erabat desregulatzea exijitzen zutenek arautze eta kontrol mekanismoak erabat biluztu zituzten, modu pornografikoan. Eta, ipuinean bezala, enperadorea larrugorrian zegoela ohartu ginen. Gehiegikeria eta eskandaluzko garaia izan omen ziren. Horrela esan zuen garai hartako Frantziako presidente Nicolas Sarkozy. Are gehiago, enpresen



BIZI ALA IRAUN
Niko Cuenca Beristain

goi kargudunen abusuak legez arautuko zituela esan eta kapitalismoa birfundatzeko deia egin zuen, esfortzuaren eta lanaren etikan oinarrituta. Gogoan dut nire izenkidearen berbak entzun nituen unea. Ez nekien ea *Eraztunen Jauna* edo *Braveheart* pelikularekin pasarte epiko bat ari nintzen entzuten. Baina ez, nor eta Sarkozy jauna ari zitzaion herriari mintzo. Delacroixen margoan bezala, etikaren bidetik herria gidatu nahian. Urteek aurrera egin ahala ohartu ginen politikan bezalakoa zela gidari lanetan. Etikaz mintzo harrotuta zebilen liderrari hiru urteko kartzela zigorra ezarri zioten ustelkeria leporatuta. Etikaren bidean

herria gidatu nahi eta espetxearen atarian bukatu...

Frantziakoa ez zen izan kapitalismoaren aldaketa beharraz aritu zen munduko lider bakarra. 2009an heldu zen Etxe Zurira Barack Obama presidentea, *Hope* lelopean. Gertatu ohi den bezala, Obamak ez zuen agindutako guztia bete, baina, egia hori, merkatuen kontrola zorrotz zuen *Dodd-Frank* legea onartu zuen. Urte askotako arinkeriak zuzendu eta bankuen kaudimen eta likidezia betebeharrak zo-

rozto zituen. Obamari, baina, Trumpek hartu zion lekukoa, eta partitulari musika aldatu zion, tamaina ertaineko bankuen araudia lausotuz. Ondorioak aurretik ikusi eta ikasi ditugu: Silicon Valley Bank, Signature Bank eta First Republic Banken porrotak. Atlantikoaren beste aldean, Suitzan, beste erraldoi historiko batek ere, Credit Suisse, hondoa jodu. Hamabost urtean lezioa ikasi gabe dugula ematen du... Kapitalismoa etikoki birfundatu behar zuenak kartzela bukatu, eta Lehman Brothesen mamua inoiz baino biziago izan da aurretik. Donostiako Jazzaldian ezagutu nuen Viva Suecia taldea, indie estilokoa, eta haiek ere ikasteari buruz kantatu zuten Zurriolako hondartzan. «No hemos aprendido nada» kontatu eta kantatu ziguten oholta gaitetik; «ez dugu ezer ikasi». Hamabost urte hauetan, behintzat, hala izan dela esango nuke.

Kapitalismoa etikoki birfundatu behar zuenak kartzela bukatu, eta Lehman Brothesen mamua inoiz baino biziago izan da aurretik

Txorrotako ura %9 garestituko da 2024. urtean

BILBO • Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoa uraren datorren urterako tarifikak onartu ditu, eta txorrotako ura %9 garestituko da 2024. urtean. Hau da, familia bakoitzak, batez beste, hamazortzi euro gehiago ordainduko ditu urtean; lau faktura izaten direnez, 4,5 euro gehiago fakturako. Azken urteetan garestitu egin da uraren prezioa: 2022tik, 27,5 euro. Ur partzuergoaren arabera, «behartuta» erabaki du igoera horiek egitea, Europako Batasuneko legediak uraren kostuaren %100 kobratzera behartzen baitu. Gaur-gaurkoz, %80 ordaintzen du kontsumitzaileak, ur partzuergoaren datuek diotenez.

Martitzeneko osoko bilkuran, datorren urteko tarifikak ez ezik aurrekontua ere onartu zuten. 233,3 milioi euro izango ditu. Aurrekontuaren %34,3 saneamendu eta hornidura sareetan inbertsioak egiteko erabiliko dute.



Bizkaia Hitza-k irakurleen eskutik plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta **Bizkaia Hitza**-k mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Bizkaia Hitza. Uribitarte, 18. 3-C. 48001. Bilbo. Eskutik Internet bidez bidaltzeko: bizkaia@hitza.eus



Gaixo daudeneko «kontrola» salatu dute gidariek

LABek deituta, Bilboko Metroko, Avanza Durangaldea enpresako —Durangaldeko eta Arratiako Bizkaibuseen lineak kudeatzen ditu—, Bilbobuseko eta Euskotreneko hainbat langilek elkarretaratzea egin zuten martitzenean, Bilboko geltoki intermodalean —irudian—. Salatu dute enpresek behar ginen osasuna «pribatizatu» dutela, gaixo daudenean haiek «kontrolatzeko» asmoz. «Mediku arretako enpresek, diru askoren truke, osagarri gisa eskaintzen dute beren burua, baina gaixo dauden langileka lanera lehenbailehen itzultzea dute helburu», salatu dute sindikatuko ordezkariak. LAB

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Euskadi, auzolana
 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO



Bermeon uztailaren 10ean herriko mugimendu feministak egindako elkarretaratzea. LEA-ARTIBAI, MUTRIKUKO ETA USTURIALDEKO HITZA

Elkarretaratzeak egiteari utzi diote Bermeoko talde feministek

Mugimendu feminista urriaren 28an hasi zen indarkeria matxista salatzen era berriekin

• Hilean behin bozgorailuarekin kalera aterako dira, eta Kabidxen panela jarriko dute

Mikel Garcia Martikorena

Erasoen aurka beste modu batera egingo du protesta Bermeoko Mugimendu Feministak. Elkarretaratzeak egiteari utzi diote herriko talde feministek. Horien ordez, bi ekintza egingo dituzte. Batetik, hilean behin bozgorailuak dituen auto batekin irtengo dira Bermeon zehar, azken egunetan gertatutako kasuak salatzen. Bestetik, panel informatibo bat jarriko dute

Kabidxe gune sozialaren kanpoko aldean, Bermeon edo Euskal Herrian gertatzen diren indarkeria matxistako kasuen berri emateko. Bi jarduerak berrien helburua da biztanleak herrian eta inguruan gertatzen diren erasoen jabe izatea; hala dio Irati Manzisidor Bermeoko Mugimendu Feministako kideak.

Urriaren 28an jarri zuten martxan ekiteko era berria. Egun hartan, autoa Bermeoko kaleetan

ibiliko zen, azken hilabeteetan Bermeon jazotako erasoak salatuz eta indarkeria matxista «arazo estrukturala» dela gogoratuz. Urriaren hiru eraso egon ziren udalerrian: 1ean, 15ean eta 23an. Eraso horiei udan gertatu ziren beste andana bat gehitu behar zaizkio, taldeak gogoratu duenez. «Udan ia astero deitu genuen elkarretaratze eraso bat jazo zelako, edo askotan bi edo hiru», esan du Manzisidorrek.

Astero arazo beragatik kalera ateratzeko «ezer» ez duela aldatzen ikusteak «erre» egin dituela uste du Bermeoko Mugimendu Feministako kideak: «Erasoak salatzen ibili gara, baina egora ez da aldatu. Horrek eragin digun frustrazioagatik, ekiteko era aldatzea erabaki dugu».

Era berria, «eraginkorragoa»
Aldaketa ontzat jotzen du Manzisidorrek: «Lehen egiten genituen

elkarretaratzeak baino eraginkorragoa iruditzen zait, bermeotarrei erasoen inguruko informazioa helarazten diegulako zuzenean». Elkarretaratzeetara «beti jende bera» joaten zela azaldu du Manzisidorrek: mugimendu feministako kideak eta udaleko ordezkariak «Autoari esker, kalean dabilen jendea informa dezake-



Datuak segituan igortzen dizkigu udalak. Horri esker, kontzientzia handiagoa sor daiteke herrian»

Irati Manzisidor
Bermeoko Mugimendu Feministako kidea

gu. Aurreneko aldi honetan, herriarrek guk esaten genuenaren inguruan interesa zutela zirudien, gutxienez».

Gainera, Bermeon jasotzen diren erasoez gero eta informazio «hobe» dutela dio mugimendu feministako kideak. «Orain elkarlanean gabilta Bermeoko Udalarekin. Datuak segituan igortzen dizkigu. Horri esker, kontzientzia handiagoa sor daiteke herrian».

Panel informatiboa

Hein handi batean, udalak igorritako informazioari esker osatuko dute Kabidxe gunearen kanpoko aldean jarriko duten kartel informatiboa. Oraindik ez dago martxan, baina hilabete honetan abiarazi nahi dute ekintza. Bizitartean egongo da banatuta panela: Euskal Herriko mapa eta Bermeoko kasuen zenbaketa. «Herriko bizilagun askok ez dakite zehazki zenbat kasu gertatzen diren; beraz, interesgarria iruditzen zaigu informazioa herriaren erdian dagoen Kabidxen kokatzea», azaldu du Manzisidorrek. Oraindik ez dute argi kasuak noiz arri zenbatuko dituzten.

Jarduteko modu berriak zeresana emango duela uste du Manzisidorrek. «Mugimendu handia egoten den leku batean egongo da panela [Arana Goiri Tar Sabinen Plazan]; gainera, asteartean merkatua egoten da. Hortaz, uste dugu herriko jendeak, oro har, erasoen berri izango duela», esan du mugimendu feministako kideak. Horrek, «ezberdin jokatzea» ekar lezake, Bermeoko Mugimendu Feministaren iritziz: «Herria bere inguruan gertatzen diren erasoen jakitun bada, bizilagun gehiago egongo dira prest erantzun bat emateko».

KARROZERIAK ★ ★ ★
Tres Estrellas

Biarritz poligonoa, 4. pab
Tel.: 94-673 21 36
www.carroceriastrestrellas.com
48340 AMOREBIETA (Bizkaia)

berria lagun iragarlea

Clínica Dental IZA Hartz Klinikak

Gorka Iza Miguel
Odontologia Orokorra
Periodontia • Ortodontia
Implanteak - Padi

San Migel kalea, 19 bis
48340 AMOREBIETA - Bizkaia
Tel/Faxa: 94-673 38 11
Mug: 688 876 107
www.clinicadentaliza.com

Bilbok 701 milioi euro izango ditu, zerbitzu publikoak «lehenesteko»

Udalak aurtan baino %5,7 diru gehiago izango du datorren urtean
• «Anbizioa» falta dutela salatu du oposizioak, besteak beste

Ibai Maruri Bilbao Bilbo

Bilboko Udalak inoizko aurrekonturik handiena izango du datorren urtean: 701 milioi eurokoa –aurten baino %5,7 gehiagokoa–. Juan Mari Aburto alkateak nabarmendu du zerbitzu publikoak «lehenesten» dituen aurrekontuak osatu dituela. Izan ere, aurrekontuaren %47 (331 milioi) «zerbitzu publikoak mantentzeko» erabiliko dituzte. «Zerbitzu publikoen garrantzia azpimarratzen denean, batzuek arriskuan daudela diotenean, esan nahi dugu hau dela benetan zerbitzu publikoen alde lan egitea». Udal langileen soldatak ordaintzeko erabiliko diren beste 192 milioi euro ere gehitu dizkio alkateak: «Azken batean, 702 milioi euroetatik 523 milioi erabiliko lirateke zerbitzu publikoak eskaintzeko. Apustu sendoa egiten ari gara».

Inbertsio publikoak ere gora egingo du: 117 milioi euro izan da aurtan, eta 121 milioi euro 2024an. Besteak beste, Zorrotzaurren eta Artxandako parkean egingo dituzte. Auzoetako inbertsioa 53 milioitik 64ra igoko da. Auzokide planaren aurrekontua hamabi milioitik hamalaura haziko da. Horrez gain, auzoetan gailu mekanikoak jartzeko 8,9 milioi euro gordeko dituzte. 5 milioi izango

ditu udalak gizarte larrialdiko laguntzak emateko.

Aurrekontuen arlo parte hartzaileak milioi bi izango ditu; udalak 33 proposamen egin ditu, eta bozkatu duten bilbotarrek hamazortzi aukeratu dituzte. Aburtok nabarmendu du 6.000 bototik gora jaso dituztela; hau da, iazko bikoitza baino gehiago.

Alkatearen esanetan, «hartutako konpromisoak» betetzeko aurrekontuak ondu dituzte. Gobernuaren helburuetako bat izan da udalak zorrik gabe jarraitzea, modu horretan laster etorriko diren «proiektu garrantzitsuei behar bezala erantzun ahal izateko»: besteak beste, Zorrotzaurren trenbidea lurperatzeko lanak eta AHTaren Bilborako sarbidea eta Abandoko tren geltoki intermodala aipatu ditu.

Urtea bukatzerako

Asteon, zinegotziek beren sailetako kontuak aurkeztu dituzte batzordeetan. Asmoa da azaroaren 28rako behin-behineko onespena ematea. Ondoren, zuzenketen txanda etorriko da, eta abenduaren 28an onartuko lirateke behin betiko, EAJren eta PSE-EEren gobernu itunari esker.

Oposizioak aurkako jarrera erakutsi du. EH Bilduko bozerra maile Maria del Ríok esan du «an-

bizioa» falta izan zaiola gobernuari: «Ez du eredu aldaketaren alde egin. Ziklo berri bat bizi dugu, baina errezeta zaharrekin jarraitu nahi dute». PPko Esther Martinezek txarretsi du «historiako aurrekontu handiena» ez dela lortu «jarduera ekonomikoa hazi» delako, «gobernuaren zerga gosegatik» baizik.



Marta Ajuria Ogasun zinegotzia eta Juan Mari Aburto, Bilbon, ostiralean. HITZA

PROIEKTU NAGUSIAK

Bilboko Udalak 2024rako ondu dituen aurrekontuak proiektu hauek jaso ditu.

B Acelerador Tower nazioarteko ekintzailetza zentroa. 1,3 milioi euro.

Malaespera meategia. 1,16 milioi euro.

Camilo Villabaso kaleko espaloia. 1,1 milioi euro.

Remar parkea Sarrikuen. 1,067 milioi euro.

Aterperik gabeko pertsonentzako arreta. 988,535 euro.

Udalatzaingoaren ibilgailuak. 978.000 euro.

Papelera Kunsthal eraikina egokitzea. 964.950 euro.

Artxandako funikularra modernizatzea. 800.000 euro.

Kobetamendiko ezpona egonkortzea. 800.000 euro.

Etzegabeei ostatu emateko programak. 790.000 euro.

Iruminetako eskailerak Otxarkoagan. 770.000 euro.

Kirolgune eta jolasguneetako estalkiak. 700.000 euro.

Zorrotzako udaltegia. 687.000 euro.

Euskara ikasteko diru laguntzak. 600.000 euro.

Olabeagako bidegorriko lur jautzia. 600.000 euro.

UEFAri, Txapeldunen Ligako finalagatik. 600.000 euro.

Pio X.aren biribilgunea. 544.500 euro.

EGUBERRI... BERRIENAK.

Mari Domingiren errepublika magikoa

Abenduaren 1etik 17ra

Sarrerak maridomingi.eus

Antolatzailea: **Oreretakastola** ALURTERIA

Laguntzaileak: **berria** ERRENTERIA DONA

Hogeit urte beteko dira 'Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza' sortu zenetik. Bere ibilbidean, komunikatzeko era berrietara egokitu da, eta euskaraz «kalitatezko» informazioa eskaintzen die herritarrei.

Kontatzen eta egiten

Markos Tedin-Uriburu Castro

Euskararen eta herriaren alde hogeit urte bete ditu Lea-Artibai, Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza-k, euskara hutsean argitaratzen den tokiko egunkariak. 2003an sortu zen proiektua, Euskaldunon Egunkaria itxi ostean. 2010ean bat egin zuen Busturialdeko Hitza-rekin. Sorreran egon ziren langileek badakite hasiera ez zela erraza izan. Lan handia izaten zuten informazioa lortzeko eta orriak betetzeko. Hala ere, sumatzen zuten euskarazko tokiko hedabidea izateko

du presentzia. Komunikatzeko kanal berriak izateaz gain, Hitza-k irismena ere handitu du urteetan, 2010ean Busturialdeko Hitza-rekin bat egitean, esparrua zabaltzeko.

«Proiektu egonkor bat»

Lore Bengoetxea izan zen Lea-Artibai eta Mutriko Hitza-ren lehen zuzendaria. Haren ustez, garai hartan bazegoen eskualdeko egunkaria izateko ilusioa, eta horregatik abiarazi zuten proiektua. Bengoetxeak argi du Hitza-k arrakasta izateko arrazoietako bat izan zela euskara: «Gurea eskualde euskalduna izanik, jendeak azkar onartu zuen proiektua. Hasieratik sumatu genuen babesa».

Bengoetxeak ziurtatu du Hitza «proiektu egonkor bat» dela. Izan ere, hogeit urteotan beste egunkari batzuentzat «erreferentzia bihurtzea» lortu dutela uste du, Lea-Artibai, Mutriko eta Busturialdeko Hitza-ra jotzen dutelako informazio bila.

Ospakizunak, Lekeition

Nafarroako Errigora egitasmoak hamar urte beteko dituela aprobetxatuz, biek batera ospatuko dute urteurrena bihar, Lekeition, Independentzia plazan. Jaialdi bateratuak hainbat ekitaldi eskainiko ditu. 12:00etan aurkeztuko du jardunaldia Nerea Gartzia. Amaia Onaindiak eta Miren Barriutiak hasiera emango diote egunari txalaparta hotsekin, Nekane Akerregiren irrintziarekin.

Goizean, tokiko ekoizleen azoka izango da plazan. Oier Biritxinaga sukaldariak pintxoak presatuko ditu Errigorako produktuekin. 12:30ean, Aissa Intxausti eta Iratxe Ibarra bertsolariak kantuan arituko dira, 13:30ean Txapelpunk taldeak kontzertu akustiko bat eskainiko du, eta 14:00etan talde argazkia egingo dute. Horrez gain, Errigorako produktuak zozkatuko dituzte.



Lea-Artibai, Mutriko eta Busturialdeko Hitza-ren erredakzioa, Markina-Xemeinen, asteartean. HITZA



LARRAITZ IBAIBARRIAGA

«Euskararen normalizazioan tresna baliagarria izan nahi du 'Hitza'-k»

Larraitz Ibaibarriaga
'Lea-Artibai, Mutriko eta Busturialdeko Hitza'-ren zuzendaria

M. Tedin-U. Castro

Larraitz Ibaibarriaga (Ondarroa, 1973) Lea-Artibai, Mutriko eta Busturialdeko Hitza-ko zuzendariak uste du sorrerako erronkak dituztela oraindik.

Hogeit urte hauetan, zer aldatu da lehen ediziotik hona?

Lan egiteko moduari dagokionez, hasierako urteetan informazioa kaleko panel informatiboetatik, telefono deietatik, zuzenean edota posta elektronikoz jasotzen ge-

nuen gehienbat. Sarri, ez zen erraza orrialdeak betetzea; buruko min bat baino gehiago izaten genuen albisteak topatzen. Argazkiak guk geuk ateratzen genituen edo ez zegoen argazkirik. Paperean jaio zen Hitza; sei hila-betera, webgunea jarri genuen martxan; eta, azken urteetan, sare sozialetan ere bagaude. Hiru ardatzak elikatuta, mugarik gabe zabaltzen ditugu Lea-Artibaiko eta Mutrikuko albisteak. Eta, horiekin batera, Busturialdekoak ere bai. Izan ere, orain dela 13 urtetik, Lea-Artibai, Mutriko eta Busturialdeko Hitza gara.

Gaur egun, zein da egoera?

Egitasmoak ondo finkatuak dituztabeak, baina oinarri sendoa behar du; hari baten gainean gaude beti. Biziraun nahi badu, erakunde eta herritarren babesa ezinbestekoa du euskal prentsa, lehen bezala, gaur egun ere bai. Gaur-gaurkoz, Mutrikuko Udalak eta Lea-Artibaiko udal guztiek laguntzen dute Hitza diruz. Bizkaiko Foru Aldundiak eta enpresa ere elkarte batzuek ere babesten dute. Publizitate bezeroek enpresa ertain eta txikiak ere etxean zein sarean egunkaria jasotzen dutenek osatzen dute babesle sarea. Egitasmoa aberas-teko, baina, babes handiagoa behar da.

Zer-nolako ekarpena egin dio Hitza-k bi eskualdeetan euskararen normalizazioari?

Ekarpena funtsezkoa izan da, eta

gaur egun ere bada. Hitza sortu aurretik, BERRIA salbu, ia ez zegoen gure herrietako albisteak euskaraz irakurtzeko aukerarik. Gure herrietako albiste gutxi irakur zitezkeen orduko hartan; ia denak herrikerik handienetakoak, gainera. Hitza-ri esker, jendea euskaraz irakurtzen hasi zen. Gauza handia izan zen nobre herriko, nobre eskualdeko albisteak nobre hizkuntzan irakurri ahal izatea; albisterik-eta pozgarriena.

Nola sustatzen du Hitza-k bertakoa?

Tokian tokikoa den heinean, Hitza zentzu guztietan da bertokoa- ren sustatzaile. Edukiak euskaraz jasotzea bermatu, eta gure eskualdeetako informazioak lantzen ditugu. Arnasa ematen diogu euskarari, eta ahotsa eskualdeotako erakunde, eragile, talde, elkar-te eta banakoei.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira Hitza-k dituen erronkarik handienak?

Erronkarik handiena sorrerako bera da: euskararen normalizazioarako tresna baliagarria izan nahi du Hitza-k, hauspoa. Azken hogeit urteetan bezala, tokiko komunikazio proiektu erreferentia izan nahi dugu aurrerantzean ere; informazioaren kalitatearengatik; bezeroei egokitutako produktua sortu eta eskaintzeagatik; gizarteari egiten dion ekarpenagatik, elkar informatuz, elkar elikatuz eta elkar ulertuz.



Eskualde euskalduna izanik, jendeak azkar onartu zuen 'Hitza'; hasieratik sumatu genuen babesa»

Lore Bengoetxea

'Lea-Artibai eta Mutriko Hitza'-ren zuzendari ohia

toko asmoa zuela herriak, eta horrek lagundu zien egunkaria aurrera eramaten. BERRIA Taldearekin batera sortu zuten. Bihar ospatuko dute 20. urteurrena.

Herriaren sostenguz aparte, hainbat babesle dauzka Hitza-k. Erakunde publikoek diruz laguntzen dute egunkaria. Tokiko publizitate bezeroak eta harpidedunak oso garrantzitsuak dira.

Hogeit urte hauetan egunkaria handituz joan da, oztupoak eta erronkak gainditzen. 2003ko azaroaren 11n 1. zenbakia argitaratu zutenetik, gauza asko aldatu dira, baina, batez ere, komunikatzeko era aldatu da. Gaur egun, prentsa idatziaren kontsumoa behera egiten ari da, eta sare sozialak eta Internet, gora. Egoera honetara egokitzea lortu du Hitza-k, eta bai Interneten bai sare sozialetan ba-



Durangoko Bizenta Mogel liburutegiko irakurketa errazeko talde baten saioa, martitzenean. SINADURA / AGENTZIA

Durangoko Bizenta Mogel liburutegiak Erraza saria irabazi berri du. Irakurketa errazeko taldeetako lana saritu dute. Hamar urte daramatza komunitatea sendotzen.

Deskodetzeak batera eginez

Naroa Torralba Rodríguez

Tradizionalki, liburutegi bat baldintza jakin batzuetan kontsultatzeko edo mailagatzeko ordenatutako eta sailkatutako liburu multzo bat gordetzen duen erakina edo lokala da. Herri gehienetan dago bat, eta azterketa garaian bete egiten dira. Durangok bada berea: Bizenta Mogel liburutegia. Esti Albizu arduradunak azaldu duenez, beti erabili izan da asko. «Biblioteka guztiek funtzionatzen zuten moduan aritzen ginen». Urteak igaro ahala, zerbitzu gehiago eskainiz joan da liburutegia. Hamaika irakurketa talde ditu. Irakurketa errazeko taldea da horietako bat, eta Erraza saria irabazi berri du.

Biltegi soil bat baino gehiago, komunitatea eraikitze leku bat da liburutegia, Albizurentzat: «Harrobia beti eduki dugu; jende asko ibiltzen da hemen, eta beste udal zerbitzu baten modukoa da hau. Bilduman oinarritzen da

esentzia, baina komunitatea sendotzeko eta batzeko erabili nahi dugu biblioteka». Herrialde Katalanak hartu dituzte erreferentziatzat, han ohikoak baitira horrelako formatuak.

Bizenta Mogel liburutegian ekintzen programazio bat osatzen dute ikasturtero, beraz. Betiere, irakurzaletasuna mantenduz oinarrian. «Irakurtzea eta ulertzea da behar duguna, hain alfabetatua dagoen mundu honetan garatuz jarraitzeko. Irakurketarik gabe, bestela, oso zaila da funtzionatzea. Ez dakit berba hori den, baina ezagutza partekatze bide oso egokia da literatura. Eta liburutegira sartzeko ateak edonori, edonola zabaltzea da gure lana. Hau beste modu bateko toki bat zen ni sartu nintzenean».

Giza liburutegiak

Liburutegiaren esentzia ezagutza partekatze leku bat izatea dela azpimarratu du Albizuk. Hori, gainera, bide askotatik egin daitekeela irizten dio: «Badago bide bat, kontakizunarena, non per-

sona fisikoa liburu bihurtzen dugun, eta jendeari asko gustatzen zaizkio modu horiek». Durangoko Udaleko Immigrazio Sailarekin elkarlanean hasi ziren formatua ehuntzen, Albizuk azaldu duenez: «Zazpi urte daramagu Bideak gurutzatuz deitzen den egitasmoan. Giza biblioteka da ekintza zentrala». Bertan, pertsona bati eta haren kontakizunari izenburu bat jartzen diote, liburu batean nola, eta jendea biltzen da, esateko duena entzutera.

Eredu hori 2000ko hamarkadan sortu zen, Danimarkan, aurreiritziak apurtzeko, jendearen errealitatea ezagutarazteko sentsibilizazio modura. Albizuren ustez, ezagutzak gauzak beste modu batean begiratzea dakar: «Guk horrela moldatu dugu: euren errealitatea hogen minutuz kontatuko duten sei pertsona izango ditugu azaroan gurean. Ekintzak bi ordu inguru iraungo du, baina hogen minutuak amaituta, jendeak erabakiko du hurrengoa entzun edo liburutegitik alde egin. Beti entzuten dituzte guztiak, de-

na den». Elkarriketa bat sortzen da. Ez da bakarriketa bat, eta horiek are bereziagoa egiten du istorioa.

Durangon 2004. urtean sortu zuten lehen irakurketa kluba, literatura maisu batek erretiroa hartu eta bere jakintza kontatzeko nahia azaldu duenean. Arrakasta izugarrikoa izan zen, Albizuren arabera: «Sei-zortzi talde finko ditugu orain, eta denak dau-de beteta. Itxaron zerrendak ere baditugu, umeenak batu gabe. Irakurketa errazekoak batuta ere gehiago dira».

Dinamizatzaile bat egoten da denetan. Irakurtzeko esfortzua ez da bera talde denetan, denek ez baitituzte bide berdina izan horra heltzeko, Albizuk aipatu duenez: «Guk eskaintzen dugu deskodetze horren demokratizazioa, hein batean».

Hamar urte dira irakurketa errazeko taldeak sortzen hasi zirela Durangon. Liburutegiko erabiltzaile batek zekien proiektua zer zen, eta haren bidez izan zuten haren berri. «Kuriosoa eman le-

zake, baina dena da horrela hemen». Irakurketa arazoak dituztenentzat saio batzuk moldatu zituzten: «Beharrian ezberdinak dituzten pertsonak batzen dira, eta beharrian berezi horiek haien esangura osoan asetzen saiatzen gara».

2013an egin zutena behin-behineko kontua izan zela aipatu du Albizuk. Orain, urritik ekainera bitarte eskaintzen dute progra-



Bilduman oinarritzen da esentzia, baina komunitatea sendotu eta batzeko erabili nahi dugu biblioteka»

«Esfortzu maila jaisten denean, etekina handiagoa da. Parekatu egiten dira esfortzua eta jasotzen duzuna»

Esti Albizu

Durangoko Bizenta Mogel liburutegiko arduraduna

mazioa. DBH 3ko eta DBH 4ko dibertsifikazio ikasleekin, adibidez, oso harreman polita garatu zutela esan du: «Sartu ziren esanez ez zitzaiela irakurtzea gustatzen, eta gehiago eskatuz amaitu zuten».

Irakurteraz denentzat

Irakurketa errazeko liburu baten testua formatu aldetik errazagoa dela aipatu du Albizuk, liburuak moldatuta baitaude: «Testua, hasteko, laburragoa da. Esaldiak ere errazagoak dira, eta testu gu-txi egoten da normalean orrialde bakoitzean. Esanahi zaila duen berba bat agertzen denean, ondolan dago jarrita esanahia».

Gakoa moldaketan dagoela nabaritu du: «Esfortzu maila jaisten denean, etekina handiagoa da. Parekatu egiten dira esfortzua eta jasotzen duzuna. Horri material gehigarria gehituta, irakurketara plazeretik hurbiltzen laguntzen ditugu». Iurretako liburutegiarekin batera jaso du Erraza saria. Irakurketa Errazeko Elkartek banatzen ditu sari horiek, eta «bultzada» gisa hartu dituzte.

Literaturaren harremana zaintzea berebizikoa da, Albizuren ustez: «Denontzat da esfortzu bat irakurtzea. Kontzentrazio handia eskatzen du. Modu atseginean gertatu behar dugu irakurketara, jakinda zer zailtasun dauden. Programazioarekin hori egiten dugu, ahalegina egin behintzat, konbentzitu gaudelako irakurketa ezagutzara hurbiltzeak bizitza hobea egiten duela. Udal zerbitzu bat gara, eta helburu hori dugu».

Bihar hasiko da aurtengo Kulturaldia, Plentzian. Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak antolatzen du jaialdia. Hurrengo lau asteburuetan egingo da, eskualdeko zenbait herritan. Abenduaren 3an amaituko da, Euskararen Egunean.

Uribe Kostan euskaldunak saretzeko Kulturaldia

Mikel Garcia Martikorena

Udazkenean, zuhaitzetako hostoak legez, eskaintza kulturala ere erori egiten da herritako karteletatik. Udako jaialdien azken txanpa gaindituta, eta herriko jaiak igaro ostean, herri asko ekintza kultural gutxi batzuekin geratzen dira. Eskaintzari eustearen beharraz jabetuta –batez ere, euskarazkoari–, Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Kulturaldia jarri zuen abian 2020an. Bihar hasiko da laugarren jaialdia. Guztira, hamalau ikuskizun antolatu dituzte lau asteburutarako. Jaialdia Uribe Kostako herrietan ibiliko da, bihar Plentzian hasi eta abenduaren 3an Barrikan bukatu arte.

Mankomunitateko Euskara Zerbitzua arduratzen da jaialdia antolatzeaz. Joanes Atxa Euskara Zerbitzuko teknikariak azaldu duenez, eskualdean «euskarazko eskaintza kulturala indartzeko ahalegina» egin behar zutela ikusi zuten pandemia ostean: «Herritarrei aukera eman behar genien euskarazko eskaintza kulturalaz gozatzeko. Horregatik erabaki genuen Kulturaldia sortu behar genuela, eta ordutik ari gara hura antolatzen».

Jaialdiak bi helburu nagusi

ditu. Alde batetik, eskualdean euskararen erabilera sustatzea eremu informalean. Bestetik, Uribe Kostako euskaldunak saretzea. Helburuok kontuan hartuta, jaialdiak hiru ardatz dituela esan du Atxak: euskarazko kultura kontsumitzea, eta «horrek dakarren euskararen erabilera» sustatzea; doakotasuna, hau da, «kulturren eta euskararen demokratizazioa, mundu guztiak horietaz gozatzeko aukera» izan dezan; eta eskualdeko herrien arteko «elkartasuna eta komunikazioa» sustatzea.

Helburuak bete eta ardatz guztiak mantentzeko, «tresna egokia» iruditzen zaio doako eskaintza Euskara Zerbitzuko teknikariari. «Doakotasuna guretzat oso garrantzitsua da, euskararen inguruko mugimendua demokratizatzeko duelako. Gure ustez, euskarak eta euskaldunak kalera irten behar dugu», ohartarazi du Atxak. Gainera, doan izanda, eskualdeko bizilagunentzat «hain ezagunak ez diren» artista euskaldunak gerturatzeko aukera ere badela iritziz dio.

Eskualdea saretu

Kulturaldia Uribe Kostako herrien arteko harremanak sustatzeko ere sortu zuten. Atxaren iritziz, «nahiko difusoa» da haien eskualdea, ez baitago «nuklearizatuta»: «Herriak



KULTURALDIA

Bihar hasiko da, Plentzian, Uribe Kostako herrietan lau aste-buruz egingo den Kulturaldia.

Plentzia

Bihar. Eire eta J Martina, 21:00etan, Astillero plazan.

Lemoiz

Azaroak 18. Kalejira mitologikoa, 18:00etan, Armintzan.

Gorliz

Azaroak 18. Pole dance eta Olaia Inziarte, 19:00etan, Ibarreta plazan.

Azaroak 19. Kale animazioa eta Afrika Bibang, 11:30ean, Ibarreta plazan.

Urduliz

Azaroak 25. Pole dance eta X Sakara, 19:00etan, Antsonekoa plazan.

Azaroak 26. Kale animazioa eta Sonakay, 12:00etan, Antsonekoa plazan.

Sopela

Abenduak 1. Bertsoaldia: Nerea Ibarzabal, Ane Labaka, Imanol Uri eta Sustrai Colina, 20:00etan, Kurtzio kultur etxean.

Abenduak 2. Xabi Aburruzaga eta Meñakoz, 20:00etan, frontoian.

Barrika

Abenduak 3. Kantu Kolore, 18:00etan, Udaletxeko plazan.

❶ **Taberna Ibiltaria.** Iazko Kulturaldian Taberna Ibiltaria Armintzako kaleetan (Lemoiz) ibili zen giro-zen, azaroaren 20an. URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEA

❷ **J Martina.** Pop elektronikoa da J Martina taldearen estiloa. Bihar joko dute Plentzian. Artxiboko irudian, J Martina. SOPELA KOSTA FEST

❸ **Olaia Inziarte.** Musikari nafarrak azaroaren 18an du kontzertua, Gorliz. Artxiboko irudian, Inziarte. INIGO URIZ / FOKU

sakabanatuta daude. Kulturaldia bezalako ekimenekin, haien arteko harreman sareak josi nahi ditugu. Eskualdeko herrietan bizi diren euskaldunen, euskaltzaleen eta euskararen beraren inguruan mugitzen direnen arteko harremanak eraiki nahi ditugu». Izan ere, Atxak dioenez, mankomunitatean nabari dute herrietan banaka kultura programazioa egon badagoen arren, ez dagoela eskualde osoa hartzen duen jarduera «nahikorik». Hortaz, beharrezkotzat daukate eremu osoa hartzen duen jaialdi bat prestatzea.

Uribe Kostako udalerrri guztiak kontuan hartzen dituzten jardueren gabeziak eragina du eskualdean, herri txikiagoak «alde batera» geratzen baitira kultura programazioari dagokionez.



Herritarren gehiengoak erakartzeko, gustu eta adin guztiei bideratutako ekintzak antolatzen ditugu»

Joanes Atxa
Uribe Kostako Euskara teknikaria

kararen Nazioarteko Eguna ospatzen da abenduaren 3an, eta, «sinbolikoa den arren, garrantzi handiagoa ematea ez dago sobran», Euskara Zerbitzuko teknikariaren ustetan. Barrikan jendea batzea ez da Sopela edo Plentzia bezalako «herri handi-goetan» bezain erraza; beraz, mankomunitateak uste du Euskararen Eguna baliatuta «jendea



bilteko ahalmen handiagoa» izango dutela.

Uribe Kostaren eskaintza kulturala ez da soilik hauspotzen eskualdeko udalerrietan jarduera gehiago antolatuta: bertako artistei ere aukera eman behar zaie. Hala uste dute Kulturaldiko antolatzaileek, eta horregatik saiatzen dira «eskualdeko sorkuntza kultural euskaldunari» bere lekua ematen. Horren adibide da, besteak beste, abenduaren 2an Sopelako frontoian kontzertua emango duela Xabi Aburruzaga musikari sopoloztarrak. «Aburruzagak ekitaldi berezia antolatu du Kulturaldirako espresuki», iragarri du Atxak.

Publiko guztiei begira

Abenduaren 2koa ez da izango Kulturaldirako bereziki prestatu den ekitaldi bakarra. Lemoizen, azaroaren 18an, kalejira mitologikoa egingo dute, Armintzan barrena. Lemoizko herri eskolarekin batera ondu dute kalejira Uribe Kostako Mankomunitateko teknikariak. «Eskolan egiten ari diren euskal mitologia lantzeko ikastaro pedagogiko jakin batekin dago estuki lotuta, eta horren bukaera izango da kalejira», azaldu du Joanes Atxak.

Euskara zerbitzuko teknikariak dio Armintzako jarduera txikienez eta familientzako dagoela pentsatuta, baina publiko guztia erakartzeko antolatu dute jaialdia: «Saiatzen gara herritarren gehiengoak erakartzen. Horretarako, gustu eta adin guztiei bideratutako ekintzak saiatzen gara antolatzen». Gazteenek eta ez hain gazte ez direnek Eireren eta J Martinaren kontzertuez goatzeko aukera izango dute Plentzian, bihar. Gainera, hilaren

Proposamena 13 Kulturaldia

18an, Olaia Inziartek kontzertua emango du Gorliz, pole dance tailerraren ostean. «Publiko helburtu bati begira», abenduaren 1erako bertso saioa antolatu dute Sopelan. Bertan arituko dira Nerea Ibarzabal, Ane Labaka, Imanol Uri eta Sustrai Colina.

Atxak dio aurtengo egitaraua antolatzeko orduan «laguntzaile pribilegiatua» izan dutela. Izan ere, Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen Udagoieneko Ostera programaren barruan sartu dira Gorlizko eta Urdulizko ekitaldiak.

BARAKALDO ANTZOKIA TEATRO

SOLE GIMÉNEZ CELEBRACIÓN 40. URTEURRENEKO BIRA

AZAROAK 11 20:00

ACCIONES SENCILLAS JESÚS RUBIO GAMO

AZAROAK 18 20:00

ESTREINALDIA EUSKADIN

COMPARTIR DANTZALDIA La FmNedictOn

Barakaldo Antzokia

Bizkaia

Barakaldo Antzokia

SARE

SAIOAREN DULMERIA VENTA DE ENTENDADA

Antzokian 100000

www.barakaldo-antzokia.com

Barakaldo Antzokia

MUSIKA

ABADIÑO Neu Troia.

● Igandean, 12:30ean, Isiotun.

ARRIGORRIAGA Beti kantuan.

Sarea abesbatza.

● Gaur, 19:30ean, Lonbon.

ARTEAGA Now Ninah.

● Bihar, 20:00etan, bentan.

BARAKALDO Melendi.

● Gaur, 21:30ean, BECen.

BARAKALDO Remember Paradise.

● Bihar, 18:00etan, BECen.

BARAKALDO Sole Gimenez.

● Bihar, 20:00etan, antzokian.

BASAURI Tremenda Jauria, Merina Gris eta Silita.

● Gaur, 20:30ean, Socialen.

BASAURI DePedro eta McEnroe.

● Bihar, 21:00etan, Socialen.

BERRIZ Los Sara Fontan.

● Gaur, 21:00etan, kultur etxean.

BILBO La M.O.D.A. (La Maravillosa Orquesta del Alcohol).

● Gaur, 21:30ean, eta bihar, 21:00etan, Santana 27n.

BILBO Irudiak lau haizeetara. Bilboko Udal Musika Banda.

● Gaur, 18:30ean, Juan Crisostomo Arriagan.

BILBO Ruien Lil eta Eneko Aris-tondo.

● Gaur, 19:00etan, Bertendona institutuan.

BILBO Victor Ruty, Rober Del Pyro & DJ Kaef.

● Gaur, 20:00etan, Kafe Antzokian.

BILBO Marco Mezquida.

● Gaur eta bihar, 20:00etan, Jazzonen.

BILBO Sarribete.

● Gaur, 20:30ean, Camposen.

BILBO The Electric Alley.

● Gaur, 21:00etan, Azkenan.

BILBO Tahures Zurdos.

● Gaur, 22:00etan, Kafe Antzokian.

BILBO Brahms / Xostakovitx. Euskadiko Orkestra.

● Bihar, 19:30ean, Euskaldunan.

BILBO Daniel Higienico.

● Bihar, 20:00etan, Cotton cluben.

BILBO Robert Rodrigo Band.

● Bihar, 20:30ean, Stage Liven.

Basauri Kontzertua



Maskaren distirak Basauriko MAZ jaialdia hasteko

Basauriko MAZ musika jaialdia gaur hasiko da. Sozial antzokiko oholtzara igotzen aurrenekoak Tremenda Jauria, Merina Gris eta Silita taldeak izango dira, 20:30ean. Bihar ere kontzertuak egongo dira, Socialen eta herriko kaleetan eta plazetan. Sarrerak hamabost euroan egongo dira salgai antzokiaren leihatilan; Interneten, hamabi euro balio dute. Irudian, Merina Gris taldea, uztaillean, Bilboko BBK Live jaialdian. ARITZ LOIOLA / FOKU

BILBO Hombres G.

● Bihar, 21:00etan, Bilbo Arenan.

BILBO Delto!

● Bihar, 21:00etan, Azkenan.

BILBO Kaleko Urdangak eta Iskanbila.

● Bihar, 22:00etan, Kafe Antzokian.

BILBO Yomil Champions.

● Igandean, 21:00etan, Santana 27n.

BILBO The Aristocrats.

● Asteazkenean, 20:30ean, Kafe Antzokian.

BILBO Hugo Fernandez Quartet.

● Ostegunean, 20:00etan, Jazzonen.

BILBO Mugan.

● Ostegunean, 20:15ean, Kafe Antzokian.

BILBO Rafa Sanchez de la Union.

● Ostegunean, 20:30ean, Camposen.

BILBO Moonshine Wagon.

● Ostegunean, 21:00etan, Biran.

BILBO La Elite.

● Ostegunean, 21:30ean, Kafe Antzokian.

BILBO Dani Flaco.

● Ostegunean, 22:00etan, Azkenan.

DURANGO Kuttune.

● Bihar, 19:00etan, San Agustinen.

ELORRIO Xahu Quartet.

● Gaur, 20:00etan, Arriolan.

ELORRIO The Wikson Organ Band.

● Bihar, 22:00etan, Arriolan.

ELORRIO La Siggarta Blues Band.

● Igandean, 20:00etan, gaztetxean.

ELORRIO HAN.

● Ostegunean, 20:30ean, Arriolan.

GERNIKA-LUMO Benito Lertxundi.

● Bihar, 19:30ean, Jai Alain.

IGORRE Zea Mays.

● Bihar, 21:30ean, gaztetxean.

IURRETA El Jazz de Claude Bolling.

● Gaur, 19:00etan, kultur etxean.

IURRETA Xabier Zeberio.

● Ostegunean, 11:30ean, kultur etxean.

LEIOA Golden Apple Quartet.

● Gaur, 20:30ean, auditoriumean.

MUNGIA Suharkorua.

● Bihar, 20:00etan, Andra Mari eta San Pedro elizan.

PORTUGALETE Bullet.

● Asteazkenean, 20:00etan, Grooven.

SOPELA Anonyme popular. Igor Elortza eta Rafa Rueda.

● Bihar, 20:00etan, kultur etxean.

ZALDIBAR Armarri eta Eje.

● Gaur, 21:00etan, Sorginen.

ZORNOTZA Elkano Browning Cream.

● Ostegunean, 20:00etan, Zelaietan.

ANTZERKIA

ABADIÑO Baginaren bakarriketak. Txalo produkzioak.

● Gaur, 20:30ean, kultur etxean.

ABADIÑO Media vida. Jarapandra konpainia.

● Bihar, 19:00etan, kultur etxean.

ABADIÑO Kelonia eta itsasoa.

Gorakada konpainia.

● Igandean, 17:30ean, kultur etxean.

BILBO Inactuales. Oscar Gomez Mata eta Juan Lorient.

● Gaur, 19:00etan, Azkunan.

BILBO Lo nunca visto. Berto Romero.

● Gaur, 21:00etan; bihar, 21:30etan; eta etzi, 18:00etan, Camposen.

BILBO Machos en flor. Josu Angulo, Kepa Alesso, Quique Gago, Aitor Echarte, Diego Perez eta Yeray Vazquez.

● Gaur eta bihar, 20:00etan, eta etzi, 19:00etan, Pabiloi 6n.

BILBO Hiru kortse azukre asko eta Brandy gehiegi. Kamikaz kolektiboa eta Ttak teatroa.

● Gaur, 19:30ean, BBK aretoan.

BILBO Malos tiempos para la lírica.

● Bihar eta etzi, 19:00etan, Arriagan.

BILBO Cosas de padres. Raul Massana.

● Bihar, 20:30ean, Camposen.

BILBO Tinder Sorpresa. Andreu Casanova.

● Igandean, 17:00etan, Camposen.

BILBO Kortxoaren dilema. Tartean Teatro.

● Asteazkenean eta ostegunean, 19:30ean, Arriagan.

BILBO La prudencia. La Compañía del Bac.

● Ostegunean, 19:00etan, Zorrotzako udalategian.

BILBO Liámalo X.

● Ostegunean, 20:00etan, Pabiloi 6n.

DURANGO Arrainak bihotzean. Mar-Mar Teatro.

● Igandean, 18:00etan, San Agustinen.

ERMUA Trash. Yllana produkzioak.

● Gaur, 20:15ean, antzokian.

GALDAKAO Obsoletus. Anodino Teatro.

● Bihar, 20:00etan, kultur etxean.

GETXO La Ratonera.

● Bihar, 20:00etan, Muxikebarrin.

GETXO Shine. Lasala.

● Igandean, 19:00etan, Muxikebarrin.

GETXO Contra-tiempo. Calema Producciones.

● Igandean, 19:00etan, Utopian.

LEMOA Ez dok ero. Tartean Teatro.

● Bihar, 20:00etan, kultur etxean.

MUSKIZ Mundos para ellos. Oscar Terol.

● Bihar, 19:00etan, Meatzarin.

SANTURTZI El beso de la mujer araña. Eusebio Poncela eta Igor Yebra.

● Gaur, 20:00etan, Serantesen.

SANTURTZI La infamia. Marina Salas.

● Bihar, 20:00etan, Serantesen.

SANTURTZI El novio de España. Christian Escuredo, Carmen Ragon eta Maria Valverde.

● Igandean, 20:00etan, Serantesen.

SANTURTZI Las guerras de nuestros antepasados. Pentacion.

● Ostegunean, 20:00etan, Serantesen.

SESTAO La Traviata.

● Gaur, 19:30ean, musika eskolan.

SONDIKA Juntos y revueltos. Gurutze Beitia eta Gorka Aginagalde.

● Bihar, 20:00etan, kultur etxean.

SOPELA Menina. Soy una puta

Abadiño ● Antzerkia



Emakumeak euren sexualitateaz mintzatzeko garaia

Emakumeak euren sexualitateaz errurik eta lotsarik gabe hitz egitea da *Baginaren bakarrizketak* antzezlanaren helburua. Txalo produkzioak ekoiztutako komedia berrehun emakumeri egindako elkarrizketen emaitza da. Abadiñoko kultur etxera helduko da ikuskizuna gaur, 20:30ean. Irudian, ezkerretik eskumara, Ainhoa Etxebarria, Intza Alkain eta Itziar Urretabizkaia aktoreak, artxiboko argazki batean. BIZKAIKO HITZA

obra de Velázquez. Chema Pizarro, Francis J. Quires eta Nuqui Fernández.

● Gaur, 19:30ean, kultur etxean.

BERTSOLARITZA

BERRIZ Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. 1. finalaurrekoa. Eneko Abasolo, Iruiri Altzerreka, Aitor Etxebarriazarraga, Xabat Gallettebeitia, Koldo Gezuraga eta Gorka Pagonabarraga. Gai emalea: Itxaro Juaristi.

● Bihar, 17:00etan, Olakueta frontoian.

GETXO Bertso afari tematikoa. Oihana Bartra eta Jon Maia.

● Gaur, 20:00etan, Azebarrin.

DANTZA

ARRIGORRIAGA Los perros. Led silhouette.

● Igandean, 19:30ean, Lonbon.

BARAKALDO Yerbagüena. Eva Yerbabuena konpainia.

● Gaur, 20:00etan, antzokian.

BILBO Tríptico. Estévez / Paños y Compañía.

● Bihar, 18:00etan, Guggenheimen.

BILBO Deustuko taldeak.

● Igandean, 12:30ean, San Pedro plazan.

DIMA Euskal dantzak.

● Gaur, 17:30ean, herrigunean.

ERAKUSKETAK

ARRIGORRIAGA Dronegrafiak.

Santiago Yanizen argazkiak.

● Gaur arte, Euskaldun Berria aretoan.

BASAURI San Migueleko Artista Nagusien Elkarteko margoak.

● Gaur arte, Taberna Nagusian.

BILBO Ni neu, Isis, Señora de todas las tierras.

● Azaroaren 30era arte, Berreginen Museoa.

BILBO Van Gogh experience.

● Urtarrilaren 30era arte, Next Exhibition Museum.

BILBO Hiri geldia. Oteiza Bilbon.

● Abenduaren 29ra arte, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko Bizkaiko ordezkariaren.

BILBO Katebizi. Zorrotzaurreko uharteaz atzera begirakoa.

● Azaroaren 21era arte, Terminalen.

DIMA Gizontasun berri baten alde.

Juan Manuel Feito hitzaldia 18:00etan.

● Ostegunean, 16:30ean, erakusketa aretoan.

DURANGO Bizitza baten islada: itsasoa, mendia eta gorputza. Jaime Vicario zenaren lanak.

● Igandera arte, Arte eta Historia museoa.

HAUR JARDUERA

BARAKALDO Behin joan nintzen. Saioa Aizpurua ipuin kontalaria.

● Gaur, 18:00etan, Gurutzetako liburutegian.

BARAKALDO Munduko ipuinak.

Ines Bengoa ipuin kontalaria. ● Gaur, 18:00etan, Errontegiko liburutegian.

BARAKALDO Loo. Antzezlan.

Ponten Pie. ● Bihar, 17:00etan eta 18:30ean, Gurutzetako Gizarte Etxean.

BILBO I Love Rock & Roll.

● Igandean, 12:00etan, Camposen.

BILBO Atxis!. Klipa eta Txorroskilo

pailazoak. ● Igandean, 17:30ean, Kafe Antzokian.

GALDAKAO Univers. Antzezlan.

Engruna Teatre.

● Bihar, 12:00etan eta 17:00etan, kultur etxean.

ZORNOTZA Esna. Dantza.

Marie de Jongh konpainia.

● Bihar, 17:30ean, Zornotza aretoan.

HITZALDIAK

BILBO Gizona bere bakardadean (Bernardo Atxaga). Xabier Etxaniz.

● Asteartean, 19:00etan, Bizkaiko Foru Liburutegian.

BESTELAKOAK

BILBO Ludovico Musical Experience. Ikuskizuna.

● Bihar, 20:00etan, Euskaldun.

GETXO Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa.

● Etzira arte, Itzubaltzetako kultur etxean.

PORTUGALETE Erraldoi eguna.

● Bihar, herrigunean.



Euskal Herriko kultur ekitaldien agenda:
Berria.eus/zerbitzuak/agenda



GORDAILUA



II. Mundu Gerran hildako Commonwealthko soldaduen hilobiak, Loiuko britainiar hilerrian, lehengo larunbateko argazki batean. 1929tik, Loiun dago Bizkaiko hilerri hori. ARITZ LOIOLA / FOKU

Britainiarren hilerria Bilbon egon zen hasieran, Ingelesen Zelaia delakoaren inguruan. 1929tik, Loiun dago Bizkaiko hilerri hori. Han daude lurperatuta fede anglikanoa eta katolikoa duten ingelesak, bakoitza bere aldean, eta II. Mundu Gerran hildako soldaduak.

Hildakoen enbaxada

Ibai Maruri Bilbao *Loiu*

Arerioak, ez beti, baina hurkoak direnean errespetuz agurtu ohi ditu gizakiak hildakoak. Horrela egin izan du Erresuma Batuak ere. Mundu zabalean ibili dira hango herritarrak, eta hil direnentzako hilerriak sortu ditu toki batzuetan. Bizkaikoa Loiun dago, aireportuko kontrol dorrearen eta futbol zelaia artean. Lehenago, Bil-

bon egon zen, Abandoibarran, gaur egun Ingelesen Zelaia inguruan –hortik datorkio izena–, Guggenheim museoa dagoen orubean.

Batez ere, industrializazioak bultzatu zuen britainiarren eta bizkaitarren arteko hartu-ema. Ingalaterrak burdina behar zuen, eta Bilbo inguruko mendietan behar beste zeukan. Horregatik, ingelesak Bizkaia etorri ziren burdin meategiak ustiatzera, industrian lan egitera eta, gerora, trenbideak eraikitzen. Esatera-

ko, Bilbo eta Tuter (Nafarroa) arteko trenbidean ibili ziren. Beraz, ingeles asko bizi ziren Bilbon eta inguruan. Gehienak, Ingalaterrako Elizako fededunak ziren: anglikanoak. Ostera, Bizkaian katolikoa zen fede ofiziala, eta katolikoa ziren hilerriak. Ingalatza, komunitate britainiar hark bere hilerria behar zuen, bere hildakoak lurperatzeko. Espainiako Erresumak orube baten erabilera utzi zion Erresuma Batuari «betirako». 1770eko hamarkadan eraiki zuten hilerria itsasadarren er-



Kapera anglikanoa, britainiarren hilerrian, Loiun. ARITZ LOIOLA / FOKU



Kapera katolikoa, britainiarren hilerrian, Loiun. ARITZ LOIOLA / FOKU

tzean. Urak hazita jaisten ziren aldiro, hilerriara sartzen zen ura. Beraz, laster hondatu zen. Horregatik, 1860an zaharberritze lanak egin zituzten. Dena den, ez zuen luze iraun egoera onean.

Hainbat gunetakoa

Mantentze kostua handia zen, eta portuak kaia eraiki nahi zuen han. Hala, XX. mende hasieran, Bilboko inguru hartatik ateratzea erabaki zuten. 1929an Loiura eroan zuten, egun dagoen lekura. Jabetza Erresuma Batuko koroarena da. Hilerri berrian, hainbat gune sortu ziren, bakoitza bere kaperarekin. Kapera anglikanoaz gain, kapera katoliko bat ere eraiki zuten, haren inguruan katolikoak ziren britainiarrak lurperatzeko. Gibraltarko gotzaina etorri zen lehena sagaratzera; Loiuko parrokoak egin zuen bigarrena. Aldi berean, beste herrialde batzuetako pertsona ez katolikoak lurperatzeko gunea ere sortu zuten: besteak beste, han daude Bizkaian bizi izan ziren Alemaniako, Frantziako, Norvegiako eta Suitzako herritarrak.

Beste zona bereizi bat ere badu Loiuko hilerriak. II. Mundu Gerran hil ziren Commonwealthko eta haien aliatuak ziren herrialdeetako soldaduak lurperatzeko eraiki zuten. Militar horietako as-

BRITAINIARREN HILERRIA, LOIUN

Helbidea. Elotxelerrri, 1. Loiu.
Ordutegia. Zabalk egoten da.
Sarrera. Doakoa.
Web orria. [Britishcemeteries-pain.org/foundation/](http://britishcemeteries-pain.org/foundation/)

ko penintsula iparraldeko britainiarren hilerrietan egon ziren lurperatuta, baina, mantentze kostuak aurreratzeko, denak Loiura ekarri zituzten. Gaur egun 56 hilobi daude, hilerri militarretan legez, txukun atonduta. Commonwealth War Graves Commission delako Erresuma Batuko erakundeak du lekua mantentzeko ardura.

Azaro hasieran, Domusantu eta Hildakoen Egunaren aitzakian, ohikoa izaten da hilerrietara bisita egitea herrialde kristauetan, izan katoliko, izan protestante. Loiuko honetan, ostera, bisitari gehienak beste jai baten aitzakian joaten dira hara: I. Mundu Gerraren amaiera egunaren bueltan –azaroaren 11–, Erresuma Batuak *Remembrance Day* (Oroimenaren Eguna) delakoa ospatzen du. Hala, etzi, herrialdeak Bilbon duen kontsulatuak kideak joango dira, han lurperatutako militarrek omentzera.